48 05
DEUSTUKO KANALA

XX. mendeko lehenengo laurdenean, Bilboko portu indartsuak zailtasunak zituen Bilboko eskualdeko etengabeko ekonomia jarduerak eragiten zuen trafikoari aurre egiteko. Orduan, Bilboko portuak moilak besterik ez zituen Itsasadarreko alde banatan, portuko kanpo jarduera urte batzuk beranduago iritsiko baitzen.

Une horretan, konponbide egokiena moilak luzatzea izan zen eta Itsasadarretik bertatik bereizten zen kanal bat sortu zen, zeinek, bi kilometro ondoren, berriz bat egiten zuen. Horren ondorioz, moila berrietako bost km handitu egin ziren.

Gauzak mantso joan ziren. Lehendabizi beharrezko lurraldeak erosi ziren, gehienak nekazaritzarako erabiltzen ziren partzelak, 1946ko ortoargazkian ikus daitekeen bezala.

1936ko apirilaren, Kanaleko lehenengo sektorerako proiektua ontzat eman zen, baina Guda Zibilaren etorrerarekin ezin izan zen hura garatu.

1949. urtera arte itxaron behar izan zen beste proiektu bat ontzat emateko. Hari esker, lanei 1950eko udan ekin egin zieten, 100 m zabalerako (130 kurban) eta 7 m sakonera zituen kanal bat eratzeko asmoz. Obra





Deustuko Kanalaren kokapena, Bilbo eta Barakaldo artean.

1968ko udan inauguratu zen, baina ez zuen inoiz Itsasadarrarekin konektatu, itsasadarretik gora, baizik eta aurreikusitako bukaeratik 370 metrotara bakarrik gelditu zen.

Horrela, Zorrotzaure irla izan behar zena , ekialdean itsasadarrekin eta mendebaldean kanalarekin mugatzen zuena (“Deustu” izena jarri zitzaion), penintsula gisa geratu zen eta haren istmoa Euskalduna ontziola zaharren aurrealdean aurkitzen zen.

Kanalaren moilek euren zeregina bete zuten 2006. urte hasierara arte. Kanpo portuaren aldeko apustua egitea erabakitzearen ondorioz, portu jarduera hirigunean garatzea oso deserosoa izatearen eraginez eta uholdeen arriskua zela eta, barne portua ia guztiz desagertu zen.






Kanalaren aurreikusitako trazadura, landatutako partzelen gainean

Ortoargazkia 1945/46 Amerikar hegaldia, A bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. UTM 30N ETRS89 // X: 502893 m // Y: 4791198 m.

Deustuko kanalaren lanak hasi ziren aire argazkia atera eta lau urte ondoren.

Itsasadarraren trazadura ikusten da eta baita etorkizuneko kanalaren inguruko partzela gehienak ere (etengabeko trazu gorriak), laborantzakoak izanik.




Ortoargazkia 1956/57. Amerikar hegaldia, B bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.


Aire argazkia atera zen Deustuko Kanalaren lanak hasi eta sei urte inguru.

Lehen begiratuan, ez dirudi aurrerapen gehiegi egin denik, baina ikus daiteke laboratzen partzelazioa desagertu dela kanalerako aurreikusitako trazaduraren bi herenetan.

Gorriz adierazi dira ortoargazkian atzematen diren Kanaleko hormaren tarteak.




Kanalaren xehetasuna, oraindik lehor, eraikitako hormekin (geziekin adierazita).



Ortoargazkia 1965. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia.

Kanal inauguratzeko hiru urte bakarrik falta ziren eta ikus daitekeen bezala, indusketa ia osorik egina dago. Lanak atzeratuagoak zeuden iparraldeko muturrean, non oraindik laborantzak partzeletan ikus daitezkeen.





Porturatutako ontzia Kanalean.

Ortoargazkia 1983. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia.

Deustuko Kanala, dagoeneko, guztiz funtzionatzen ari da, bertan ikus baitezakegu hamar itsasontzi eta hainbat gabarra moiletan, baina ez dago itsasadarrarekin lotuta ekialdeko muturrean.

"Zorrotzaurreko Penintsulak" dagoeneko bere aspaldiko nekazaritza garaiak ahaztu ditu eta bertan industria sare bertan ezarri da, nahiko anarkikoa baina duela urte gutxira arte arrakastatsua. Horrez gain Itsasadarrera begira dauden etxebizitzen zenbait bloke dago. Era berean, San Ignacio eta Ibarrekolanda bezalako auzoen hiri hazkuntza ere nabarmentzen da, Kanalaren ekialdean.





Zaharberritutako lehenengo eraikina: IDOM ingeniaritza konpainiaren egoitza, Elorrieta biltegi frankoaren egituraren gainean.

Ortoargazkia 2014. Iturria. Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

Kanaleko jarduera, dagoeneko, amaitu egin da eta istmoan atzeman daiteke Itsasadarrarekin behin betiko konektatzeko lanak burutzen ari direla, hirigintza eta hiri birsorkuntzako proiektu handi baten inguruan, bertako industria sarea zaharkituta eta erdi baztertuta baitzegoen. Horrez gain, aurreikusi da Kanala irekitzeari esker, 1986. urtean gertatutako bezalako uholde handiak izateko arriskua nabarmen murriztuko zela.



Ortoargazkia 2015.Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Ikus daiteke Kanalaren ekialdeko irekieraren trazadura –oraindik hustu gabe dago- eta Frank Ghery zubia, Julio Urkixo kaleko jarraipena, ia amaituta, (2015eko irailean inauguratuta), ura horren azpian zirkulatzen hastearen zain. 75 m luzera eta 28 m zabalera dituen zubi bat da. Kanalean eutsi gabeko taula dauka, bi errailekin eta oinezkoentzako bi nasarekin.

Deustuko kanala irekitzearekin paraleloki hirigintza eragiketa handi bat diseinatu zen. Harekin zaharkitutako industria sarea kenduko zen, irlan zeuden etxebizitzen eraikin urriak zaharberrituko ziren eta 5.500 etxebizitza berri eraiki ziren, eta baita ekonomia jarduera “garbiak” garatzeko eta hiri ekipamendu desberdineko guneak gaitu ziren ere; hori guztia 839.000 m^2-ko azalera batean, 93 futbol zelairekin baliokidea.

Horrez gain, Zorrotzaurre irla berria mugakidea zen hiri sarearekin modu egokian komunikatu nahi zuten, eta horretarako, hiru zubi eraikitzea planteatu zen. Horietatik bi ekialderantz: zegoeneko inauguratuta zegoen Frank Ghery zubia, eta beste bat, San Ignacio auzorantz. Hirugarren zubi bat Itsasadar gainetik igaroko zen.

Zonaldeko zaharberritze lanekin lotutako lehenengo eraikina IDOM ingeniaria enpresako egoitza izan zen (2011). Ez da planta berriko eraikuntza bat, baizik eta Elorrieta biltegi franko zaharraren eraikina zaharberritu zuten. Harekin, Zorrotzaurre proiektuaren helburuetako bat lortu zen, alegia; zonaldeko industria eta portu jardueraren memoria mantentzea. Eraikin hau kanalaren eskuineko aldean kokatzen da eta bertan ere eragiketa honekin lotutako bigarren eraikina ere aurkitzen da. Azken hau, ordea, planta berrikoa: IMQ klinika, 210 oherako edukierarekin.

Aurreikusitako beste esku-hartze bat, Jardueraren iparraldeko muturrean, “La Ceres” irin fabrika bere horretan ekartzean datza, nabarmen hondatuta, baina indar handikoa.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi Etxebizitza kopuru gehien dituen Zorrotzaurre irlako sektorea Olabeaga kaleko ingurua da, San Pablo elizarekin.